

The background of the entire page is a dense, overlapping collection of circular buttons. Each button features a different colored background (white, light blue, light green, light orange) and a pattern of small dots in various colors. The buttons are decorated with three main icons: a stylized ear, a stylized leaf, and a stylized flower. The text 'BELARRIPREST' is printed in a bold, sans-serif font on the buttons with the ear icon, while 'AHOBIZI' is printed on the buttons with the leaf and flower icons. The text is in various colors (blue, red, green, orange) to match the button's background.

H IRUTXULO KO
HITZA

EUSKARALDIA

**Hitzez ekiteko
garaia heldu da**

ESKAINTZA BEREZIA

Jaso ezazu **IRUTXULO KO HITZA**
etxean 7 hilabetez.

35€

Egin zaitez
HITZA *hile*



Hartu **HITZA** Euskaraldian!



DONOSTIAKO HEDABIDEAK E.M.
Ametzagaña, 19, behea
20012 DONOSTIA
Tel: 943-46 72 36
IRUTXULO.HITZA.EUS

Data: 2022ko azaroa.
Publizitatea:
Aizpea Aizpurua Arroio.
Lege gordailua:
SS-0226/05

Testuak:
Erredakzioa.
Diseinua:
Oier Arribas Ciria.
Azaleko argazkia:
Joseba Parron San Sebastian.

Euskaraldiaren garrantzia eta ahalmena

KIKE AMONARRIZ GORRIA

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEKO PRESIDENTEA

Gainean dugu Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Lehenengoak sekulako eragina izan zuen. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialak berrikuntza handia suposatu zuen ordura arte «euskararen alde» antolatutako egitasmoen aldean, Euskal Herri osoko erakundeek eta eragile sozialek elkarlanean antolatu zutelako, berrehun mila partaide baino gehiago izan zituelako, eta milaka pertsonen beren gorputzetan sentitu zituztelako euskarara jauzi egitearen edo lehen hitza euskaraz egitearen sentazioak, euskaraz egiteko konplizitate eta sare berriak sortu zirelako eta euskara agenda komunikatiboaren erdigunean kokatu zuelako. Bigarren-
goa, pandemia betean egin behar izan genuen, eta burutu ahal izatea bera sekulako arrakasta izan zen. Gainera, era guztietako entitateetan milaka arigune sortu ziren.

Euskaraldia praktika da, erabilera da. Ez da euskararen aldeko kanpaina. Ez da jarrera baten adierazpena, jokaera praktikoko baten inguruko konpromisoa baizik; norbanako mailan nahiz kolektiboan. Ez da euskarak dituen aje guztien sendagai mirakulutsua, baina, erabileran aurrerapausoak emateko tresna eraginkorra da, ikerketek frogatu bezala.

Bere ahalmen nagusien artean dago eragin masiboarena. Euskaraldiaren bidez, milaka eta milaka euskaldun (hartzaile nahiz hiztun) euskara erabiltzeko prest agertu dira publikoki, aurretik erabiltzen ez zuten pertsonekin eta egoeratan. Euskaraldiari esker, horretarako bultzada eta motibazioa sentitu dute, eta urrats hori egiteko baldintza egokiak sumatu dituzte inguruan. Horregatik da horren garrantzitsua parte hartzea masiboa izatea, ahalik eta txapa gehien ikustea leku guztietan, eta kaleak berriz hartzea banderolekin, muralekin, eta abar. Gutxien uste dugun pertsona, giro horretan, euskara erabiltzera animatu daitekeelako!

Bestalde, era guztietako entitateetan ariguneak sortzea, hizkuntza biziberritze prozesurako oinarriak jartzea da. Batetik,

entitate horietan euskararen erabilera erosorako aukerak non dauden identifikatzen dugulako, eta bestetik, aurrera begira, normalizazio-prozesua abiatzeko edo indartzeko urratsa ematen delako.

Garrantzi handiko beste aspektu bat da, Euskal Herri osoan, berau prestatzeko ehunka batzorde sortzea. Euskararen inguruko elkarterik edo bestelako antolakuntzarik ez duten herrietan,

ahalik eta gehienak egonkortzea eta iraunaraztea dugu helburu, Euskaraldiaren ondoren ere, erabilera sustatzeko dinamikarekin jarraitu dezaten.

Euskaraldia, azken batean, heldulekua da, palanka, abiapuntua. Inertziak puskatzeko heldulekua da, erabile-

ran urrats bat aurrera egin nahi duten pertsona edo entitate guztientzat. Eta aitzakia egokia, euskarari buruz hausnartzeko eta erabakiak hartzeko. Palanka da, ariketa praktikoa delako eta konpromisoak eta erronkak eskatzen dituelako. Ez da manifestu bat sinatzea eta kito. Hausnarketa kolektibo izugarria ere bada Euskaraldia, non pertsonen eta erakundeen kontraesanak ere agerian geratzen diren: jarreraren eta praktikaren arteko kontraesanak, nahiaren eta portaeraren arteko distantziak. Eta abiapuntua izan nahi du, egun horietako lorpenak eta dinamikak iraunaraztea baita ariketa honen helbururik behinena.

Badakigu, izango ditugun lorpenetatik batzuk mantendu egingo direla eta beste batzuk inertziak jango dituela, baina aurreko Euskaraldiek erakutsi diguten bezala, bukatu eta hila beteetara, egoera ariketa egin aurretik baino hobea da. Ariketa bakoitzean, partaideek helburu berriak lortzen dituzte eta partaide berri asko integratzen dira lehen aldiz. Horregatik, jarraitu beharko dugu Euskaraldiarekin «kolpeak» bi urtez behin ematen, eta tartean, euskararen erabilera sustatuko duten bestelako egitasmoak bultzatzen Euskal Herri osoan.

Honengatik guztiarengatik, eman izena Euskaraldian. Hitzek ekiteko garaia da!



Ez da euskarak dituen aje guztien sendagai mirakulutsua, baina, erabileran aurrerapausoak emateko tresna eraginkorra da, ikerketek frogatu bezala



Hitzez eta ekintzez euskaraz aritzeko aldia da

Hemen da hirugarren Euskaraldia: gaur hasiko da, eta abenduaren 2an bukatuko da, Euskararen Egunaren bezperan. 'Hitzez ekiteko garaia' da aurtengo Euskaraldiaren leloa, hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea dela aldarrikatzeko.

T_Beñat Parra Rodríguez

Duela lau urte, 2018an, egin zen estreinakoz Euskaraldiaren ari-keta soziala, eta handia izan zen: 225.000 parte hartzaile izan zituen guztira; horietatik, ia 18.000 Donostian. 2020koak ez zituen horrenbeste parte hartzaile izan (178.000), pandemiak erabat baldintzatu baitzuen. Ordea, hemen da hirugarren Euskaraldia (gaurtik abenduaren 2ra), eta antolatzailerik espero dute «masiboa» izatea.

Izan ere, kaleetara itzuli da jendea, eta euskararen aldeko aldarria kalean da berriz ere; horren erakusgarri izan zen 22. Korrika jendetsua. Hain zuzen ere, Donostiako AEK-ko Aitziber Otegik

Donostia erdialdean, ☎ 943 46 46 55
Prim kalea, 9 (Gernika pasealekua)
20006 Donostia-San Sebastián
info@urumeaeuskaltegia.eus

www.urumeaeuskaltegia.eus

Instagram Facebook Twitter YouTube

Altzan, ☎ 943-40 03 16
Txapiñenea kalea, 1
20017 Donostia-San Sebastián
altza@urumeaeuskaltegia.eus

nabarmendu zuen Korrikak erakutsi zuela euskaldunen «herri gogoa». Horrela, Korrikak lekukoa pasatu dio Euskaraldiari, Otegiren hitzetan: «Orain, denon txanda da; norbanakoez gain, erakundeak ere hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Hala izango al da?».

Donostian, udalak eta Bagera Euskaltzaleen Elkartek antolatu dute Euskaraldia, eta kalea *ahobizi* eta *belarriprest* txapak soinean daramatzaten pertsoenez beteta ikusi nahi dute, Bagerako Maddi Juanikorenaren hitzetan, «horrek emango diolako ikusgarritasuna Euskaraldiari». «Azken finean, Euskaraldia ariketa sozial masibo bat da, eta ariketa behar bezala egitea da oinarrian dagoena. Horretarako tresna nagusiak identifikatzen gaituzten *ahobizi* eta *belarriprest* txapak dira», gehitu du.

2020an, ariguneak izan ziren berritasun nagusia, eta orain ere egongo dira,

aurtengo Euskaraldia duela bi urtekoaren jarraipen modura planteatu baitute: «Berritasuna izan ziren ariguneak, izaera desberdinetako entitateetan sor-

MADDI JUANIKORENA
EUSKARALDIAREN ANTOLATZAILEA

«Euskaraldia ariketa sozial masibo bat da, eta ariketa behar bezala egitea da oinarrian dagoena»

tu zirenak. Horiek, nolabait, gunebestatu bat eskaintzen dute euskaraz hitz egin ahal izateko. Euskaraldian zehar, entitate horietako kideek *ahobizi* edo

belarriprest modura jokatzaren dute, rol horiek betez, baina nabaritu dugu hamabost egun horiek pasatzen direnean, gunehorietan egin diren hizkuntza ohi-turen aldaketak mantentzea errazagoa dela».

Juanikorenak gogorarazi du 2020ko ariketa sozialak «hutsuneak» izan zituela, pandemiarengatik: «Pandemiak ez zuen utzi Euskaraldia behar bezala egiten, eta izan genituen hutsuneak agerikoak dira: ia ezin genuen kalean egon, negozio asko itxita zeuden, eta, beraz, aurtan ahalegin berezia egingo dugu entitateetan ariguneak sortzeko».

Bestalde, *ahobizi* eta *belarriprest* rolek egin beharrekoa gogoratu du Bagerakoak: «*Ahobiziek* beti euskaraz egingo dute lehenengo hitza, eta elkarriketata elebidunetan ahalik eta gehien saiatuko dira euskara gailentzen. *Belarriprestek*, aldiz, euskaraz dakitenei berarekin euskaraz egiteko eskatuko die-

Bihur zaitez AHOBIZI HITZEZ Euskaltegian

hitzez euskaltegia

Kolon pasealekua, 5 behea
GROS - 20002 DONOSTIA

943-27 81 55 | hitzez@hitzez.eus | www.hitzez.eus



2018ko Euskaraldiko mintzodromo berezia. **IRATI SALSAMENDI LOZANO**

te, eta egoeraren arabera aukeratuko dute beraiek noiz egin euskaraz eta noiz ez». Ildo horretatik, Juanikorenak nabarmendu du ariketak «kalitatezkoa» izan behar duela: «Uste dugu ariketa ondo egitean jarri behar dugula arreta. Donostian, Euskaraldiaren lehenengo ediziotik hona, uste dut jendeak ulertu duela rol bakoitzaren zeregina. Onartu behar dut kostatu egin dela rolak barneratzea, baina uste dut jendea ulertzen ari dela Euskaraldiak eskaintzen duen metodologiak eta ariketak emaitzak eman ditzakeela». «Euskaraz bizi nahi duen komunitate batentzat ari gara lanean, eta bide horretan laguntzen duen tresna da Euskaraldia. Arnas luzeko proposamena da gurea, eta orain aurre-

rapauso handiak emateko aukera izango dugu, berriz ere», gaineratu du Bagerakoak.

Euskaraldia eraginkorra da

Hizkuntza ohiturak aldatzea izan da hasieratik Euskaraldiaren helburua, eta asko izan dira 2018tik hona ohitura horiek aldatzeko hautua egin duten pertsonak; herritar anonimo asko, baina baita hainbat pertsona ezagun ere.

Tanya de la Cruz aktorea, adibidez, kolonbiarra da, eta Euskaraldiaren aurretik gidoi bat aurrean izanda euskaraz hitz egiteko gai bazen ere, dioenez, Euskaraldiak «gidoirik gabe euskaraz hitz egiteko aukera» eman dio.

Iñaki Salvador donostiarra da, baina

jendaurrean euskaraz hitz egitea «erronka handia» izan da beti beraren-tzat. Ordea, 2018an hizkuntza ohiturak aldatzeko hautua egin zuen, eta publikoki erakutsi zuen bere konpromisoa, Donostiako hamaikakoko kide izan baitzen. Horrela, estrategia bat garatu duela azaldu du: «Nik jazza jotzen dut, inprobisazioaren musika, eta elkarrizketa batek horrekin lotura handia du, elkarrizketa batean ere inprobisatu egin behar duzulako, hizkuntzaren arauak errespetatuz. Horretarako, grabazioak aproposak dira: aurretik pixka bat entseatu, esan nahi duzuna grabatu, trabatzen bazara borratu, eta berriz grabatu». Horri esker, dagoeneko «elebiduna» da Salvador.



Euskaraldiarekin bat!

Arostegi Kalea, 10, 20009 Donostia. 943-31 60 66



Testuinguru askotan hizkuntza ohiturak aldatzeko balio dezake Euskaraldiak: etxean familiarekin, tabernan lagunekin, lantokiak lankideekin eta kirolaria bazara, baita aldagelan taldekideekin ere, Bera Berako eskubaloi jokalaria Esther Arrojeriari gertatu zitzaion moduan. Izan ere, azaldu duenez, taldean euskaldun asko egonda ere, kanpoko jokalariek ez dutenez euskaraz hitz egiten, «nahigabe», euskaldunen artean ere gaztelaniaz hitz egiten hasi ziren. Aldiz, «Euskaraldiari esker», hizkuntza ohiturei buelta eman zieten: «Hori aldatzen hasi ginen; jokalaria euskaldunon artean eta entrenatzailearekin euskaraz hitz egiten dugu orain».

Euskaraldiko parte hartzaile gehienak *ahobiziak* izaten dira, baina *belarripresten* garrantzia nabarmendu du Pilar Kaltzada kazetariak, berak rol hori hartu baitzuen *belarriprest* izena

IÑAKI SALVADOR MUSIKARIA

«Nik jazza jotzen dut, eta elkarrizketa batek horrekin lotura handia du, elkarrizketa batean ere inprobisatu egin behar duzulako»

ESTHER ARROJERIA KIROLARIA

«Hizkuntza ohiturak aldatzen hasi ginen; jokalaria euskaldunon artean eta entrenatzailearekin euskaraz hitz egiten dugu orain»

PILAR KALTZADA KAZETARIA

«Ume talde batekin egiten nuen lan, eta sekulako ahalegina egiten zuten nirekin gaztelaniaz hitz egiteko. Horrela, esan nien euskaraz hitz egiteko»

bera existitu aurretik: «Garai hartan, ume talde batekin egiten nuen lan, eta sekulako ahalegina egiten zuten nirekin gaztelaniaz hitz egiteko. Horrela, esan nien euskaraz hitz egiteko, eta nik egingo nuela ahalegina, ez beraiek. Horrela, galtzen ari garena ezagutzen dugu».

Euskaraldia denontzako ariketa da, gazte, heldu zein zaharrentzako ariketa. Dituzun hizkuntza ohiturak dituzula, inoiz ez da berandu ohitura horiek aldatzeko hautua egiteko. Mariano Ferrer kazetari donostiarra zen horren erakusgarri, berez erdalduna izanda, 2018ko Donostiako Euskaraldiko hamaikakoaren parte izan baitzen, *belarriprest* gisa, ia 80 urterekin. Eta, berak argi zuen: «Joan-etorriko bidaia dugu hau, bestela ez dago euskararik. *Belarriprest* aktibo bakoitzak egunero ate bat irekitzen dio euskarari. Pozgarri eta pizgarri».

DONOSTIA *aek* euskaltegiak

- Dirulaguntzak
- HABEk homologatutako euskaltegiak
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

www.aek.eus

ANTIGUAKO AEK

Erregezain, 22
943-218088
antigua@aec.eus

AMARA BERRI AEK

Ordoñez 7
ARCCO parean
943-474592
amara@aec.eus

GROSEKO

IRRINTZI AEK
Iztueta 3, behea
943-327611
gros@aec.eus

Zu Donostian
zaude,
AEK ere bai



EUSKARA - IKASTAROAK





Maddi Juanikorena, Donostiako Euskaraldiaren antolatzaileetako bat.

Ahalduntzea, hizkuntzan ere giltzarri

Euskarari eusteak zenbait testuingurutan sortzen duen ezinegona, egoera horri aurre egiteko moduak eta norberaren esperientziak partekatzeko asmoz, ahalduntze eskola bat egitea pentsatu zuen Bagera Elkarreak. Euskaraldia baino lehen ezin izan dute martxan jarri, baina ariketa kolektiboak eragingo duen olatuak eskola otsaila edo martxora aldera martxan jartzea ahalbidetuko diela espero dute.

T&A Aitor Odriozola Zubillaga

Dagoeneko abian da Euskaraldia-ren hirugarren edizioa. Gaurtik hasi eta abenduaren 2ra bitarte, bakoitzak bere erronkari eutsiko dio, nork bere rolean, eta askotariko esperientziak bizituko ditu. Batzuk positiboak izango dira, ezbairik gabe: espero ez den pertsonaren baten parte hartzea, ohitura txikien zein handien aldaketarako lehen urratsak egiteko aukera... Beste batzuek, ordea, azkura gehiago eragingo dute, eta, egun ere, euskaraz bizitzeko hautua egin duen pertsonaren egunerokoa zein mal-kartsua izatera irits daitekeen bistaratu-ko dute. Hain zuzen, egoera horien aurre-an zer egin, eta ahalik eta modurik one-nean aurre egiteko garrantzitsua da aurretiazko lanketa bat edukitzea. Beste era batera esanda: euskal hiztunak ahal-duntzea.

Bagera Elkarteko kideek oso presente dute ahalduntze prozesuak duen ga-rrantzia, eta ahalduntze hori jendeari transmititu nahian aritu dira Euskaral-dia iritsi aurreko azken asteetan zehar. Maddi Juanikorena Diaz bertako langi-lea da, eta aipatu du, proposamena Eus-karaldiko lantalde orokorretik iritsi ba-zen ere, eurek lehenago ere bazituztela kezka batzuk: «Euskaraldiaren ariketan bi rol daude zehaztuta, *ahobizi* eta *belarriprest*, eta asko kostatu da sozializa-tzea rol bakoitzari dagozkion eginkizu-nak zeintzuk izan beharko liratekeen». Donostian, esaterako, *ahobizi* kopurua oso handia izan da aurreko bi edizioe-tan, eta hala izatea aurreikusten da oraingoan ere. Juanikorenaren esane-



**IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK**

**Hitzez
ekiteko garaia**

**Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com**

tan, datu hori ez da erreala: «*ahobizi* izateko euskaraz ondo egitea ez da nahikoa, kontua da ea zu prest zauden zure eguneroko bizitzan euskararen hautua egiteko denbora guztian, parean daukazun jende guztiarekin, euskaraz ulertzen baldin badu. Eta hori beste kontu bat da».

Hari horri tiraka, *ahobizien* rola ondo betetzeari begira «hutsune bat» zegoela nabaritu zuten. Honela laburbildu du Juanikorenak egoera: «Gauza jakina da Euskaraldiaren dinamika eraginkorra izateko *belarriprest* asko behar direla, bidea zabaltzen diotelako euskarari eutsiko dion figura horri, *ahobiziari*, baina eusle portaera edukiko duen gutxieneko kopuru egonkor bat egotea beharrezkoa da, gerora aldaketak gerta daitezen». Beraz, *ahobiziaren* eusle portaera indartzeko hausnarketatik abiatuta, ahalduntzea helburu izango duen lanketa bat prestatu dute.

Euskaldunon eguneroko ogia

Ahalduntze horren garrantziaz galde-tuta, Juanikorenak beharrezkotzat jo du aurretiko prestaketa bat egotea, benetan euskaraz bizitzera iritsi nahi badugu. Esperientzia pertsonaletik hitz egin du: «Nik agian pentsatu dezaket euskaldun moduan oso prestatua eta kontzientziatua egon naitekeela, lehen hitza beti euskaraz egiten dudala, edo nahiko prest nagoela hainbat eremutan euskarari eusteko, baina gero konturatzen naiz sekulako hutsuneak dauzkadala». Dena den, onartu du denak ez direla norberaren hutsuneak izaten, eta bizi garen baldintzek ere hautu horretan eragiten dutela azpimarratu du. Azken finean, egoeraren analisi bat egitea proposatzen dute: «Donostian bizi den pertsona baten moduan, hemen zer aukera dauden euskara erabiltzeko, zer oztopo, oztopo horiek norbere baitakoak diren edo norberaren gain ez daudenak diren, horiekin zer egin daitekeen, nola sentitzen den bat egoera horietan, nola kudeatu egoera horiek...».

Galdera horiek askotariko erantzunak izan ditzakete, eta, batzuetan, arrazoi batengatik edo bestearengatik, euskal hiztuna hizkuntzaz aldatzera eraman dezakete. Egoera horiek sortzen duten eragina ere ezkuta ezina da. Juanikorenak: «Adibidez, administrazioa zoazenean eta euskaraz erantzungo ez dizun pertsona bat parean tokatzeak sortzen duen ezinegona. Badakizunean, gainera, zure eskubidea dela euskaraz artatua izatea». Aurreiritziek ere paper garrantzitsua jokatzen dute horretan guztian, eta eremu ezezagun edo erdaldunagoetara joatean bestelako beldurak agertu ohi dira. Estres linguistikoa deitzen zaio horri: «Hizkuntza gutxitu bateko hiztun zaren neurrian, segundo baten baitan hautatu behar duzu lehen hitza zein hizkuntzatan egin, eta hor ezinegon eta zalantza asko sortzen dira».

Juanikorenaren esanetan, euskaldunok «egunero eta etengabe» bizi dugu estres linguistiko hori.

Zaila da egoera horiei aurre egiteko moduak aurkitzea, baina «ulerriketa metodologia» aipatu du Juanikorenak: «Ulermen maila baxuagoa duen jendearekin elkarriketa ulergarri bat izateko nola egin zehazten du. Badira momentu deseroso batzuk, baina mekanismoak egon badaude».

Galdetzea bera izan daiteke mekanismo horietako bat, ea pertsona horrek ulertzen zaituen. Baina, esplizituki galdetu gabe ere, Juanikorenak dio badaude beste modu batzuk pertsona horrek ulertzen zaituen ala ez jakiteko, elkarriketan zehar egiten joateko galderatxo batzuen bitartez. Argi utzi du gainetik kendu behar dugula deseroso sentiaraztearen zama, baina aitortu du oraindik ez gaudela ohituta elkarriketa elebidunak izatera, Donostiako datuek hori zerbait egingarria dela dioten arren: «Ulermen maila oso altua da: herritarren ehuneko oso altu batek ulertzen du euskara, gaitasuna beste hainbatek daukate eta egunerokoan hitz egiten dutenak gutxiago dira». Juanikorenaren esanetan,

MADDI JUANIKORENA DONOSTIAKO EUSKARALDIAREN ANTOLATZAILEA

«*'Ahorizi' izateko euskaraz ondo egitea ez da nahikoa, kontua da ea zu prest zauden zure eguneroko bizitzan euskararen hautua egiteko denbora guztian*»

«*Eusle portaera edukiko duen gutxieneko kopuru egonkor bat egotea beharrezkoa da, gerora aldaketak gerta daitezen*»



Xalbador bertsolaria 9, 20018 DONOSTIA · Tel.: 943-89 93 04
idazkaritza@antigua-luberri.net · www.antigua-luberri.net



Antigüa
Luberri

- DBH: Eleanitza frantsesa
- BATXILERGOAK
- BATXILERGO ELEANITZA: Euskaraz eta ingelesez

Antigüa-Luberri ere euskararen olatuaren gainean



2016ko Egia Euskaraz dinamika, Euskaraldiaren oinarrietako bat. **E. ZABALA**

marjina horrek «aukera handiak» zabaltzen ditu gisa horretako praktikak aurrera eraman ahal izateko.

Harri batez lau kolpe egin

Herritarrengan hausnarketa bultzatu eta aipaturiko egoera horiek guztiak landu asmoz, Bagera Elkartek ahalduntze eskola sortzeko deialdia egin zuen iraila erdialdera. Urriaren 13an hasita, astean behin eta ordu eta erdiz, bederatzi saioz osatutako ikastaroa izan behar zuen. Azkenean, ordea, jende kopuru nahikoak izen-eman ez zuela iritzita, egitasmoa alboratzea erabaki zuten. Horren arrazoia aztertu nahian, Juani-korenak dio agian giroa oraindik «epel» zegoenean atera zutela, Euskaraldia hasteko hilabete pasatxo falta zenean. Baliteke formatuak ere zer esana edukitzea: «Azkenean, ikastaro

trinko bat da, saio batzuk eskatzen ditu, eta agian ez da erakargarria izan».

Hala ere, ez litzateke lehenengo horrelako egitasmo bat mar-txan jartzen den lehen aldia. Izan ere, gauza jakina da Egia Euskaraz dinamika Euskaraldiari egin zion ekarpena: Lutxo Egia idazle bilbotarrak 2015ean egindako erronka aintzat hartuz –*Transitoak* performancea egin zuen Bilbon, hilabetez gaztelania alboratuta–, 2016. urte hasieran astebeteko txanda-tan euskara hutsean aritu ziren parte hartzaileak, zortzi astez; biak ala biak Euskaraldiaren oinarritzat jotzen dira. Bada, ekin-bide horretarako prestatzeko, TELP izeneko tailer bat antolatu zuten Egian. Kataluniatik datorren lanketa bat da hori; Gemma Sangines eta Ferran Suay dira sortzaileak. Hasierako saio ho-riek nahiko sakonak izaten ziren, lau ordu ingurukoak, eta saio



horiek zein gerora sortu ziren prestakuntza saio arinago batzuk hartu zituzten aintzat Bagera Elkartekoek eskola diseinatzerako orduan. Dena den, lantalde zabala aritu dira prestaketa lanean: «Topaguneko edo Euskaraldiko lantaldeko kideak egon gara, Soziolinguistika Klusterreko aholkulari bat, eta Tolosa, Getxo, Erreterria eta Donostiako Euskaraldiaren dinamizatzaileak». Hain zuzen, lau herri horietan zen abian jartzekoa eskola, baina, azkenean, Erreterrian eta Getxon bakarrik jarri dituzte martxan.

TELP eta gainontzeko ikastaro horien aldean, ahaluntze eskolak orain arteko prestakuntzetatik «urrats bat gehiago» egitea dakar Juanikorenaren esanetan: «Guk eskola luze bat proposatzen dugu, eta horrek taldea egiteko aukera ematen du, bakoitzaren esperientzia pertsonala partekatzeak aukera... Terapiatik ere izango du zerbait, beharbada, baina askoz ere aukera gehiago ematen dizu esperientzia horietatik irakaspenak ateratzeko». Askotariko gaiak jorratzeko bide ematen du eskolak: «Estres linguistiko eta aurreiritziak; asertibitatea eta ahaluntzea; ulerrizketa metodologia eta elkarrizketa elebidunak; eta erdaraz diren elkarrizketak nola irauli».

Feminismoa oinarri

Gizarteko beste alor batzuetan ere badaude halako eskolak, emakumeen ahaluntze eskolak, esaterako, eta, hain zuzen, hortik ere «edan» nahi izan dute: «Esaten genuen: zergatik ez euskaldunon ahaluntze eskola bat?». Hala ere, aitortu du beldurra ere izan dutela, bi errealtateak parekatzearena: «Guretzat eskolari izen hori jartzea erabaki garrantzitsu bat izan zen, eta konplexuz bete hartu genuen, gure zalantza guztiekin: ea hori horrela esatea ez ote zen gehitxo esatea. Baina bada ere euskaldunok bizi dugun zapalkuntzen inguruko hausnarketa bat egitea eta horrek gure gorputzetan duen eragina azalartzea... Hortik ere badator ahaluntzearen ideia».

Askotan, ezinegon sortzen dizun horri izena jartzea bera zein lagungarria den azpimarratu du Juanikorenak: «Horrek aukera gehiago ematen dizu ezinegon horri aurre egiteko. Kasu batzuetan agian ez du mereziko horri aurre egitea, edo beste batzuetan agian ez duzu indarrik izango, baina kontziente izango

zara». Zentzu horretan, oso baliagarria iruditzen zaio feminis-
motik jasotako esperientzia eta ahaluntzea hizkuntzaren es-
parrura eramatea. Kolektibotasuna, esaterako: «Esperientziak
partekatzeak saretze bat dakar, eta hau kolektiboan egitea as-
koz ere eraginkorragoa izango litzateke bakarka egitea baino.
Orduan, honakoa da bidea: kontzientzia hartzea, ahaluntzea
eta kolektiboan egitea aurrera».

Esan bezala, Euskaraldia hasi baino lehen zeukaten eskola
martxan jartzeko asmoa, baina atzeratu egin behar izan dute.
Horrek, behinik behin, Erreterrian eta Getxon izango diren
bizipenetatik ikasteko balioko die, edukiren bat aldatu behar
dela edo zerbait falta dela ikusiko balute: «Planteamendua
moldagarria da. Berez, proba pilotu bat izatera zihoan. Guri
oso ondo etorriko zaigu beste bi esperientzia horietatik ondo-
rioak biltzea». Gaur gaurkoz, euskaldunon ahaluntzearen
beharra «oso agerikoa» dela dio Juanikorenak. Are gehiago,
«hizkuntz eskubideak aldarrikatzeak azken hilabeteetan zen-
bat eraso eta arrisku dakartzan ikusita». Eskola batek egoera-
ri buelta ematen laguntzeko aletxoak jarri bai, baina arazoa
konponduko ez duela jakitun, Juanikorenak uste du aberas-
garria izango litzatekeela ahaluntze eskola Donostiara ekar-
tzea. Ondo bidean, otsailean edo martxoan espero dute mar-
txan jartzea, Euskaraldiaren olatuak jendea gehiago aktiba-
tuko duelakoan.



BAZKARIAK ETA AFARIAK EMATEN DITUGU

Ikatz kalea, 14 · 943-45 79 57 

MARCO S

okindegia

Benetako antzinako ogia

Ubarburu pasealekua, 113
27. Industrialdea
ASTIGARRAGA

Tel.: 943-45 09 66

Faxa: 943-11 67 28

Zer egingo dugu?

2020ko ariketan bezala, urrats berriak egingo ditugu, eta norbanakoek ez ezik, entitateek ere neurriak hartuko dituzte hizkuntza praktika euskaldunagoak bultzatzeko. Horrela, taldean ere hizkuntza ohiturak euskararen mesedetan aldatzeko ariketa egin ahal izango dute.

Zergatik entitateak?

Lehen edizioan norbanakoen ariketa izan zen Euskaraldia, eta bigarrenean taldeetara ere pasatu zen, entitateetara. Taldeak antolatuak eta finkoak izaten direnez, bertako kide guztiei zuzenean eragiten diete hizkuntzaren esparruan bertan hartutako erabakiek, baita ingurukoei ere, zeharka. Gainera, entitateei eremu horiek babesteko eta sustatzeko konpromisoa eskatuko zaie eta, epe luzerako helburuez ari garenez, ariketa amaitzean hizkuntza ohiturak aldatzeko hartutako urratsak egonkortzea proposatuko zaie.

Nola egingo dugu?

2022an Euskaraldiak, aurreko edizioan egin moduan, 15 egunez, herritarrei *belarriprest* eta *ahobizi* portaerak hartzeko deia luzatuko die, eta mota guztietako entitateetan ariguneak osatzeko proposamena ere egingo du.

Arigunea

Arigunea, euskaraz lasai aritzeko gunea da, belarriprest eta ahobiziz osatua. Osaketa eta funtzionamendu ezberdinetako ariguneak daude:



Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte, ariguneren bat badute. Ariguneek, edo euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek *ahobizi* eta *belarriprest* modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen bitartean, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan.

Helburu nagusia entitate horien harremanetan euskararen erabilera handitzea da. Parte hartzeko, zuzendaritzaren eta entitateko gainontzeko kideen inplikazioa beharko dira.



San Martin
merkatua



EUSKARALDIA
HITZ EKITEKO GARAIA

Ahobizi

Euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro. Kideek euskaraz ulertzen ote duten ez dakidanean lehen hitzak, beti, euskaraz egiten ditut; euskaraz ulertzen badute, euskaraz jarraitzen dut. Batzuetan zaila izan arren, elkarriketa elebidu-netan ere euskarari eusten diot kideek ulertzen dutenean.



Belarriprest

Aldiro erabakitzen dut euskaraz norekin, noiz edota non egin. Agian, beti ez dut euskaraz egingo ulertzen duten guztiekin, baina euskara dakitenek niri uneoro euskaraz hitz egitea nahi dut; eta horixe eskatzen diet modu esplizituan.



Irudikatu zure lekua munduan



SANTO TOMAS
LIZEOA



**ARROPA
ETA DEKORAZIO
NAUTIKOA**



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA | Tel./Faxa: 943-42 47 97 | enbatadenda@gmail.com | www.enbata.eus



Euskararen erabilera ez aurrera ez atzera, azken hamar urteetan Donostian

Donostiarraren %15,3k erabiltzen du euskara, Soziolinguistika Klusterraren 2021eko datuen arabera. 1993an baino 9 puntu gehiago egiten da hirian, baina «gazi-goza» da zenbakia Olatz Andueza ikerlariarentzat; azken hamar urteetan ez baitu gora egin.

T_Xalba Ramirez Cruz

Bost urtean behin egiten du Soziolinguistika Klusterrak hizkuntzen erabileraren kale neurtzea. Emaitzak joan den maiatzean kaleratu zituzten, eta aurreikusitako joera mantendu da, bai Donostian, eta, baita, orokorrean, Euskal Herri osoan ere.

Eta zein da joera? Bada, 1990eko hamarkadatik 2000ko hamarkado erdialdera izandako gorakada eten egin dela, eta antzeko puntuan mantendu dela, ez aurrera, ez atzera.

Klusterreko kide Olatz Anduezak Donostiari buruzko xehetasunak eman dizkigu, bera izan baita informearren ardura-dun nagusietako bat.



Hitzez ekiteko garaia

Abuztuak 31 kalea, 23
Parte Zaharra, Donostia
943-42 63 62
www.restaurantegandarias.com



«Lehenik eta behin, ikerketa nola egin den argitu behar dugu», ohartarazi du. 2021eko iraila eta urriaren artean, Euskal Herri osoko herrietan egindako ikerketa dela neurketa. 200 orduz, herriko kaleetan egiten da ikerketa, eta behaketa bidez, bertan ematen diren elkarrizketen hizkuntzak jasotzen dira. Beraz, «ez da inkesta bat; dimentsio handiko ikerketa bat, baizik».

1993an hasi ziren ikerketa mota hau egiten, eta azaldu duenez, 2006tik aurrera behaketa orduak gehitzearekin batera, «akatsa txikiagoa da, eta fidagarritasuna handiagoa».

Donostian, 9 puntu gora 30 urtean

Aipatu moduan, Donostian mantendu egin da azken hamar urteetan hiztun kopurua, edo, hobe esanda, kale erabilera: Donostiarraren %15,3k erabiltzen du euskara kalean.

2011ko eta 2016ko kale erabilera datuak, 15,2koa eta 15,3koak ziren, eta, beraz, aipatu moduan euskararen erabilera egonkortuta dago hirian.

1993an bestelako datuak izan ziren: behatutako elkarrizketen %9,5 besterik ez ziren izan euskaraz. Etengabeko goranzko joera izan zuen 1990eko hamarkadan hirian, 2006an goia jo zuen arte, %18,2koa izateraino. 2011n izan zuen hiru puntuko beheraldia, eta ordutik hor mantendu da, belaunaldi aldaketa izan den arren.

Datuetan nabarmentzen denez, Donostia da hiririk euskaldunena. Gainera hiriburuetan %2,5 eta %4 artean dago

kale erabilera: Gasteiz %4,1, Bilbo %3,5, Baiona %2,7 eta Iruñea %2,7. Horrez gain, nabarmentzekoa da hiriburuetan altua goa dela beste hizkuntzen erabilera Euskal Herri osoan baino.

Euskal Herriko probintziei dagokien, Gipuzkoan hitz egiten da euskara

OLATZ ANDUEZA SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

«Euskaraz ulertzen duten pertsona kopurua
igotzeak ez du esan nahi hitz
egiteko gaitasuna hain
altua denik»

«Goranzko joerarik ez izatea kezagarria da.
Hizkuntza politika iraunkorragoak egin
behar ditugu, datu zientifikoetan
oinarritutakoak»

gehien (%31). Hurrengo postuan dago Bizkaia (%9), eta %5-6 inguruko erabilera maila dago Araban, Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian.

Euskararen ulermena, gora

Kale erabilera datuak garrantzitsuak diren arren, Eustaten beste datu batzuei ere eman die garrantzia Anduezak: jakintza mailari, hain zuzen.

Eustaten datuen arabera, EAEko 2 urte eta gehiagoko biztanleen % 62,4k (1.349.808 pertsona) euskararen ezagutzaren bat zuen 2021ean. Ezagutza mailari so eginez, 936.812 euskaldunak lirateke

euskaraz ongi ulertu eta hitz egiten dutenak, eta 412.996 ia-euskaldunak, ulermen ona edo halamoduzkoa dutenak.

Gainera, aztertutako azken hamarkadan, euskaldunen proportzioa 2011n %37,2 izatetik % 43,3 izatera igaro da; 11 puntuko hazkundea ekarri du 2001 eta 2021 artean.

Hiriei dagokienez, Bilbo da 2011tik euskaldunen proportzioaren hazkunderik handiena izan duen hiriburua, 2011n baino ehuneko 7,66 puntu gehiago, eta 103.631 euskaldun dira orotara: guztizkoaren % 30,6. Donostian, biztanleen %46,7 euskaldunak ziren 2021ean, ola83.866 pertsona guztira eta 2011n baino ehuneko 6,1 puntu gehiago. Gasteizen, euskaldunen ehunekoaren hazkundea ehuneko 7,4 puntukoa izan da, eta 72.778 dira euskaldunak, % 29,8.

«Gazi-gozoa»

Euskararen jakintzak gora egin duen arren, kale erabilera ez du zertan eragirik izan, aitortu du Anduezak, «ulermena igotzeak ez du esan nahi hitz egiteko gaitasuna hain altua denik».

Aurtengoa datuak, beraz, «gazi-gozoa» dira Anduezaen ustez. Batetik, mantentza bera goraitatu du: «Bizi dugun mundu globalizatuan, hizkuntza txiki bat mantentzea ez da gutxi».

Ordea, goranzko joerarik ez ikustea kezagarria dela uste du Anduezak. Horregatik, «beste hizkuntza politika iraunkorragoak» egiteko beharra ikusten du, «datu zientifikoetan oinarrituta».



Euskaraz biziz

**HAUR ETA
LEHEN HEZKUNTZA**

Konkorrenea, 7
Ametzagaña, 40
Tel.: 943-28 21 32

012358aa@hezkuntza.net
www.aitorikastola.hezkuntza.net

«GURE IKASLEEK AKADEMIKOA DEN ZERBAITEKIN LOTZEN DUTE EUSKARA»



MAIALEN EZKERRA

ALTZA BHIKO ZUZENDARIA

Ikasleen egunerokoan euskara txertatzeko erronka dute Altzako Institutuan. Ohitura hori egikaritzeko asmoz ekingo diote Euskaraldiaren hirugarren edizioari. Orain arte egindako bidea baloratu bai, baina, egoera iraultzeko, ezinbestekotzat dute Altzako eragile guztiak elkarlanean aritzea.

T_Aitor Odriozola Zubillaga

Zein helbururekin hartuko duzue parte Euskaraldian?

Zuzendaritzarentzat, euskara ardatz estrategikoa da. Gure helburu nagusia da ikaslearen euskararen erabilera eta gaitasuna handitzea. Bigarren erronka moduan, gure ikasleek euskararengana atxikimendua lortzea nahi genuke, hau da, euskara gustuz eta atseginez egitea. Azken finean, euskara beraien

parte den zerbait gisara bizitzea. Gure ikasleen artean dagoen hutsunerik nabarmena erabilera dago. Hor jarri nahi dugu guk indarra.

Institutuan zeintzuk dira dituzuen erresistentzia handienak euskarak presentzia handiagoa izan dezan?

Pentsatu behar duguna da gure ikasleek euskararekin daukaten harreman ia bakarra gurekin dela, ikastetxean. Normalean, ikastetxetik atera eta gune erabat erdaldunera atera ohi dira. Orduan, oso zaila daukate.

Egun, nolakoak dira harremanak institutuan bertan?

Hizkuntzari dagokionez, irakaslearen artean euskaraz bizi gara. Langileekin, garbitzaileekin, esaterako, badago euskaldunen bat, eta erdaldun batzuk ere badaude. Baina azpimarratu nahi dut euskararekiko oso jarrera ona daukateela, *belarriprest* rola har dezaketena. Horretan ere ari gara lanean, beraiek ere ariketa sozial masibo honetan parte har dezaten. Orokorrean, euskararekiko harremana ona da. Familiekin ere aurrerapauso batzuk eman dira. Organo gorenean, adibidez, hezkuntza komunitateko eragileak dauden tokian [Institutua osatzen duten estamentu guztien ordezkariak daude bertan: ikasleak, ira-



JOBILAN
Errehabilitazioak

620-70 69 36

www.jobilan.eus

Teilatuak.
Fatxadan isolamendu termikoa...
Pintura barnean eta kanpoaldean.
Lan koordinaketak.

Txirrita Bertsolaria, 21 · Altza · Donostia · info@jobilan.com

kasleak, familiak eta langileak], orain dela urte batzuk dena gaztelania hutsez egiten zen, baina orain saiatzen ari gara poliki-poliki hori aldatzen eta euskaraz egiten, elebitan, behintzat.

Ikasle eta irakasleen arteko harremanean, ordea, asko kostatzen zaie hizkuntzari eustea, izugarri. Ez daukate erraztasunik. Diagnostiko eta emaitza guztiekin konturatzen gara gaitasuna, pixkanaka bada ere, handitzen joaten dela, baina guk ikusten dugu erabilera oso txikia dela.

Altza ez da oso euskalduna, neurri handi batean, XX. mendearen bigarren erditik aurrera kanpotik etorritako jende oldeagatik, baina, egun, horien bilobak euskaraz ikasten ari dira. Hor zerbait mugitu da.

Bai, 60ko hamarkadan etorri zirenak gure oraingo ikasleen aitona-amonak dira. Beraiek ezin izan zuten euskara jaso, askori damu hori geratu zaie, eta orain euren bilobak behintzat hizkuntza jasotzen ari dira.

Azken urteetan, gainera, Arriberri-Oleta ingurura, bereziki, familia gazte euskaldun asko etorri da bizitzera, zuek nabaritu al duzue?

Bada, bai, gu ere sumatzen ari gara. Lehengo ikasturtean, adibidez, Arriberri-Oletako guraso askok deitu ziguten ate irekietara etorri nahi zutela esaten, eta hemengo proiektuaren berri izan nahi zutela, entzun baitzuten hemen euskararen aldeko apustua egiten dugula.

Itzul gaitezen Euskaraldira. Zer ekintza antolatu dituzue?

Guretzat oso garrantzitsua da euskararen aldeko ariketa sozial masibo hau ikasleei, langileei eta familiei erakustea. Nolabaiteko gonbitea egin nahi dugu norberak dagokion rola har

«Iruditzen zaigu
apustu eta politika argiak
behar direla Altza
euskalduntzeko»

«Euskaraldia garrantzitsua
da ikasleek ikus dezaten
institututik kanpo ere
euskaraz egin daitekeela»

dezan: *ahobizi* edo *belarriprest*. Ikasleekin klase guztietan landuko dugu, eta, horretarako, zenbait euskarri erabiliko ditugu: bideoak, edizio honetako abestia... Gero, patioan Euskaraldiaren logoarekin argazki erraldoi bat egingo dugu. Horrez gain, jarduera batzuk egingo ditugu Euskararen Nazioarteko Eguna erekin lotzeko. Izan ere, abenduaren 2an bukatuko da Euskaraldia, ostiralez, eta egun horretan jaialdi bat egingo dugu Euskaraldiaren bukaera eta Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Jaialdi horretan, komentatu dudak argazkiaz

gain, herri kirolak ere egingo ditugu, eta deialdia egin dugu irakasleen artean bakoitzak ahal duen neurrian lagun dezan: musika, bertsoak...

Zein izan ohi da horrelako egitasmoetan ikasleengandik jasotzen duzuen erantzuna?


Normalean, ona, baina egia da asko ez direla kontziente zertan ari diren.

Eta nola egin liteke ikasleen artean aktibazioa sustatzeko?

Oso zaila da, baina nik uste dut oso garrantzitsua dela euskararen aldeko eragile guztiak elkarrekin lan egitea, gu barne. Baina ez bakarrik institututik edo herri mugimendutik, iruditzen zaigu apustu eta politika argiak behar direla Altza euskalduntzeko. Gure ikasleek akademikoa den zerbaitekin lotzen dute euskara, eta hor saltoa eman beharko genuke. Nik uste dut Euskaraldia oso garrantzitsua dela beraiek ere ikus dezaten institututik kanpo ere euskaraz egin daitekeela, eta euskarak bere presentzia baduela.

Baduzue zerbait buruan Altzako herri eragileekin elkarlana indartzeko?

Bai, ari gara. Aurtengo Korrikan lehenengo Korrika Gaztea antolatu dugu, AEKrekin eta beste ikastetxeekin batera. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu guk hor parte hartzea. Baina ez bakarrik bertako eragileekin, baita udal txearrekin ere. Udaletxeko Euskara Zerbitzuarekin ere lanean ari gara, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zaigu; alegia, abanikoa zabalagoa dela.

 **altza** 40+
institutua
ALTZA DEZAGUN EUSKARA!!!

Altza pasealekua 43, 20017 Donostia – 943-89 92 49 – 012224aa@hezkuntza.net



«BETI EGON DIRA EUSKARAZ ARITZEKO OHITURA DUTEN JOKALARIAK»



JABIER OTERMIN ZELAIA

**BERA BERA KO MUKATZIO
ARDURADUNA**

Nekez pentsa zatekeen Euskaldia eta Qatarren jokatzeko ari den gizonen munduko Futbol Kopa lotu zitezkeenik, baina, txapelketa hori dela eta, eskubaloia ez du ohiko etenaldirik izango. Ez, behintzat, ohiko datetan, eta hori aprobetxatu du Bera Berak edizio honetan parte hartzeko.

T_Aitor Odriozola Zubillaga

Zein helbururekin eman duzue izena Euskaldian?

Batetik, azken bi edizioetan ez bezala, lehenengo mailako taldeak egun horietan partida jokatu du. Normalean, eskubaloia etenaldirik izaten du abenduan, Munduko Txapelketa edo Eurokopa direla eta, baina aurten ez. Aurten azaroaren 26an partida izango dugu, eta, gainera, etxean. Beraz, hor aukera bat dago le-

hen taldea Euskaldia babesa emateko erabiltzeko.

Bestetik, guretzat aitzakia bat ere bada gure barne antolaketarako, ditugun gabeziek jabetu, eta hausnartzeko ea zer egin dezakegun euskara gehiago zabaltzeko. Alde horretatik, fokua jokalarien arteko elkarriketetan jarriko dugu. Izan ere, euren arteko solasaldietan erdarara jotzeko joera handia da.

Entitate moduan, non dituzue zailtasunik handienak?

Guretzat, arazorik larriena eskubaloiko entrenatzaileak lortzea da; are gehiago, euskaldunak izatea nahi badugu. Orduan, jokariengana jotzen dugu asko; Sara Gilek, esaterako, infantilak eta kadeteak entrenatzen ditu. Kasu horietan, normalean entrenatzaileari laguntzailea euskalduna jartzen diogu.

Ariguneak sortuko dituzue, euskara sustatzeko helburuarekin.

Bai, ohitura hartzea nahi dugu. Sumatzen dugu erdararako joera dagoela, batzuetan besteetan baino gehiago. Horretatik aprobetxatu nahi dugu edizio hau, inertzia horiei buelta ematen saiatzeko. Euskaldian gazteen kategoriatik gora egin nahi dugu lan. Gazteetan eta seniorretan ez dago arazorik, denak euskaldunak baitira. Adibidez, gazteen taldeetan



LAIA
ABOKATUAK

Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30
Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia



DELTA
PAPELERIA

Hitzez ekiteko garaia

Andrestegi, 2 behe - ANTIGUA - Donostia
943-22 38 98 - deltapapeleria@gmail.com

[deltapapeleria](https://www.instagram.com/deltapapeleria)

euskaraz entrenatzen dute, baina euren artean, nahiz eta euskaraz ere egiten duten, badago gaztelerara jotzeko joera. Eta gauza bera seniorretan. Seniorretan, ordea, Ipar Euskak Herriko neska bat dago, eta, hari gazteleraz egitea pixka bat gehiago kostatzen zaionez, giroa euskalduntzen laguntzen du.

Goi mailako taldean, Super Amara Bera Beran, zailagoa da, kanpoko jende asko dagoelako. Bertako giroa erdalduna da, baina saiaturako gara euskaldunen artean euskaraz egiten saiatzen. Gaur egun Alba Menendezek, Esther Arrojeriak eta Maitane Etxeberriak duten ohitura mantendu nahi dugu. Ia hamar bat urte daramatzate elkarrekin, eta euren artean euskaraz egiteko ohitura daukate, baita June Loidik, Maddi Aallak eta Ane Erauskin gazteagoek ere. Dinamika hori mantendu nahi dugu, etorriko direnekin ere berdinaraitu dezan, eta ikus dezaten hemen ere euskal giro bat badagoela. Izan ere, taldean beti egon dira euskaraz aritzeko ohitura duten jokalaria, lehen ere baziren: Matxalen Ziarsolo, Uxue Ezkurdia, Libe Altuna...

Euskarari dagokionez, kanpotik datorren jokalariekin gaia landu izan duzue?

Batzuek, Sara Gilek, adibidez, badute euskararekiko atxikimendu hori. Brasil-darrek ere, barrez-edo, baina galdetu izan dute ea gauzak nola esaten diren, dakitenera arte gauzak azaltzen saiatu izan dira... Joera hori ere badago.

Kontuan hartu behar da, hala ere, he-

men hiruzpalau urte ematen dituztela, gehienez. Hemen badago gero Europara joateko joera: Frantziara, Errumaniara... Azkenean, batzuk Bera Bera trapolin moduan erabiltzen dute. Beste batzuk, agian, nahiago izaten dute gehiago jokatzea, eta badakite hemen ez dutela nahi

«Fokua jokalarien arteko elkarrizketetan jarriko dugu; euren artean erdarara jotzeko joera handia dago»

«Arazorik larriena eskubaloiko entrenatzaileak lortzea da; are gehiago, euskaldunak izatea nahi badugu»

adina jokatuko. Orduan, zaila da dinamika horretan zerbait egitea.

Bera Bera bada klub garrantzitsu bat hemen inguruan. Hizkuntzarekiko lanketa egiterako orduan sentitzen duzue ardurarik?

Bai, guk egiten dugun lan guztia elebitan egiten dugu: bazkideekin harremanak, familiekin, neska-mutilekin... Beti saiatzen gara hori bermatzen, eta, lehen komentatu dudana entrenatzaile falta egon arren, beti kokatzen dugu norbait euskalduna haren alboan, umeein euskarazko harremanak mantendu ahal izateko.

Gero, gizarteari begira ere, egiten dugun guztia euskaraz ere bermatzen dugu: sare sozialak, webgunea, prentsaurrekoak... Adibidez, orain erabaki dugu hemendik aurrera harrobiko albisteak, emaitzak eta agenda euskara hutsean jartzea webgunean. Guk neurri horrekin esan nahi duguna da guretzat euskara garrantzitsua dela, eta horrela sentitzen dugula. Dena den, kontziente gara oraindik ere badauzkagula gauza batzuk lantzeke.

Urri bukaeran +Kirola egitasmoa aurkeztu zenuten, emakumeen kirola sustatzeko asmoz. Hausnartu duzue bertan euskarak izango duen presentzia?

Bai, noski. Ikastetxeekin emakumeak kirolean duen papera landu nahi dugu, kirolean ere ibilbide profesionala egin daitekeela, kirolak ematen dituen balioak...Eta hori guztia euskaraz egingo dugu. Gero, beste zenbait gauzez gain, hitzaldiak ere antolatuko ditugu, eta saiatuko gara hitzaldiren bat euskaraz egiten. Hori da asmoa, behintzat.

Ez dugu bakarrik eskubaloira mugatu nahi, beste kiroleko jokalariekin ere kontaktuan gaude. Oraindik ez dugu erabat itxi, baina Gipuzkoako beste herri batzuetara ere zabaltzea nahiko genuke egitasmomoa. Uste dugu hori garrantzitsua dela, baina hor gatazkak eta beldurrak sortzen zaizkigu: ea Bera Bera klub egokia den Gipuzkoako herri batean zerbait antolatzeko, eskubaloiko jokalaria ez den kirolari bat protagonista izatea...



www.amaraberri.org | Tel.: 943-45 85 50 | zuzendaritza@amaraberri.eus



Adur Tolosa eta Nora Garzia Parte Zaharreko euskara taldeko kideak dira.

Euskaraldiak auzoetan hartzen du lur

Bi urtean behin egiten da Euskaraldia, baina euskararen aldeko lanak urte osoa irauten du. Donostian, auzoz auzo, euskararen aldeko taldeak antolatzen ari dira Euskaraldia aprobetxatuta, ingurunean eraldaketa sortzeko.

T_Xalba Ramirez Cruz

Euskaraldia ez da kanpaina bat; ariketa sozial kolektibo bat da, hizkuntza ohiturak aldatzeko helburu argiarekin. Horregatik hartzen dute parte horrenbeste eragilek: denon lana ezinbestekoa delako.

Baina erronka handi horiek lur hartu dezaten, auzoz auzo antolatu eta eragitea ezinbestekoa da; auzoetan hartzen du lurra Euskaraldiak.

Añorgan, adibidez, euskara batzordeak lanketa berezia egin du, Euskaraldia sustatzen, eta baita, euskararen aldeko konpromisoak hartzeko deia eginez. Urko Askasibar Ezama (1977, Pasai-Antxo, Gipuzkoa) da taldeko kideetako bat, eta auzoan euskararen inguruan duten kezka azaldu digu: «Añorga auzo euskalduna da, baina kezka dugu, erabilera beheraka ari delako».

Haur eta gurasoekin du ardura berezia, «ikastolako patioan, haurrak zein gurasoak, erdaraz entzuten ditugu, eta hori ez da normala».

Azpitarrek dioenez, «euskararen alde ez dago formula magikorik; gure esku dago, besterik ez». Horregatik da berarentzat garrantzitsua Euskaraldia, «konpromisoak hartzeko balio digulako».

Hainbat dira Euskaraldiarekin bat egin duten bizilagun, elkarte eta enpresak. Aurten egin duten lanketan hainbat dira egitasmoarekin bat egin duten enpresa berriak: PXport, Fagor Arrasate S. Coop. ieTeam Group Orona eta S.Coop Vascongada ehorzketa taldea, besteak beste.



Urrats
euskaltegia






Karlos I.a, 10 – www.urrats.eus – 943-46 55 93

Hitzez ekiteko garaia

Oiartzun



● Gozotegia: Ijentea, 2 • Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6 • Tel.: 943-29 09 07
 ● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com

Helburua argi du Azpitartek: «Euskaraldiaren aitzakiarekin ohiturak aldatu behar ditugu; ez hamabost egunez, baizik eta 365 egunez».

Parte Zaharrean ere euskararen alde

Parte Zaharreko Euskara taldeak Euskaraldirako lanketa berezia egiten du hirugarren aldiz. Auzoko hainbat elkarrek parte hartzen dute bertan, eta norbanakoek ere bai. Euskararen aldeko «egun puntualetan» elkartzan dira, eta auzoan egiten dute lanketa.

Urtero saiatzen dira zerbait berria eskaintzen, eta, aurten, sortu berri den Parte Zaharreko bertso eskolarekin kontatu dute. Kijera gaztetxean sortu zen bertso eskola, baina gaztetxea galtzearekin batera galdu zen. Aurten berreskuratu dute hasiberrien taldearekin eta jada martxa hartua dutenekin: «Gazteak dira guztiak, eta uste dugu auzoari kristoren ekarpena egiten dio-

tela», kontatu du Adur Tolosak, euskara taldeko kideak.

Bertso eskolakoekin bertso poteoa egingo dute, eta horretaz gain, Konstituzio plazan bertso saio berezi bat antolatu dute, Unai Gaztelumendi, Alaia Martin, Eli Pagola eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin. Antzerki bat ere antolatu dute: «Ramon Agirre dago antolatzaileen artean, eta aprobeitxatu egiten dugu! [barrez]».

Giroa hotza, baina konpromiso sendoa

Komertzioekin lanketa berezia egiten dute urtero, «harrera oso onarekin». Izan ere, Tolosarentzat «Euskaraldia egitasmo erraza da parte hartzeko, eta jendeak begi onez ikusten du».

Auzoko egoera «bereziarekin» zaila da euskararen aldeko lanketa egitea: «Gure auzoan kanpoko jende gehiago dago bertakoak baino. Horregatik komertzioekin egiten dugu saiakera handiagoa».

Horren turistifikatuta dagoen auzoan, txapa soinean jartzeari garrantzia ematen diote, elkar ezagutu eta elkar identifikatzeko: «Polita da norbait ezagutzen duzunean, eta begirada konplize hori sortzen da, soinean txapa daramanarekin», dio Nora Garziak.

Aurten, ordea, «hotzago» sumatu dute giroa. «Lehen urtea *boom* bat izan zen, eta aurten ez dirudi hainbeste». Baina horrek ez du garrantziarik kentzen, «inporta duena herritar bakoitzak hartzen dituen konpromisoak baitira».

Tolosak, adibidez, lehenengo Euskaraldira ohitura hartu du komertzioetan beti lehen hitza euskaraz esateko. Gai nontzekoan euskaraz bizi direla nabarmentzen dute.

Urte osoan zehar lanketa egitearen garrantzia gogoratu du Garziak: «Bada jendea beti egon dena hor, euskararen alde lanean; hori da ezinbestekoa. Horregatik, aurten ere Jonpa Albisu oroituko dugu».

Euskaraldian...

Gu ere gozatzeko prest!

Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia



zuhaiztilhi.hezkuntza.net
012202aa@hezkuntza.net
943-89 91 75

Zuk eta nik
euskaraz beti



ILAZKI
EUSKALTEGIA

Ekin hitzekin

HABEk diruz lagundua

HABE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

AZAROAK 18, OSTIRALA

EGIA

17:30. Haurrentzako antzerkia Egia kultur etxean: *Tartalo Gaztaren Sekretua*. 5 euro.

LOIOLA

17:30. Ipuin kontaketa musikatua Loiola kultur etxean.

AZAROAK 19, LARUNBATA

EGIA

17:30. Haurrentzako antzerkia Egia kultur etxean: *Tartalo Gaztaren Sekretua*. 5 euro.

INTXAURRONGO

17:00. Ilustratzailearekin lantegia: Txotxongiloak eta Txanogorritxuak. Maite Gurrutxaga. Haurtxokoa.

AZAROAK 20, IGANDEA

LOIOLA

12:00. Trikitilarien kalejira auzoan.

13:45. Bertso saioa: Jon Maia eta Jexux Mari Irazu, Eliza kalean. Ondoren, bertso bazkaria Hontza elkarte.

AZAROAK 22, ASTEARTEA

INTXAURRONGO

19:00. Intxaurrondo kultur etxean, solasaldia. Zenbat hitz egiten da euskaraz Intxaurrondon?

AZAROAK 23, ASTEAZKENA

MORLANS

17:30. Nerabeentzako bertsolaritza ikastaroa auzo elkarte.

AZAROAK 24, OSTEGUNA

GROS

19:30. Bertso saioa Pandora tabernan: Nerea Elustondo, Aitor Etxeberriazarraga, Iker Ormazabal eta Peru Aiartza.

AZAROAK 26, LARUNBATA

LOIOLAKO ERIBERA

17:00. *Etxean goxo* txotxongilo antzerkia Rosa Martinezen eskutik. 3 urtetik gorako haurrentzat. Ikasbide ikastolako gimnasioan.

18:30. Txokolate jana eta euskaraokea Paloma Miranda plazan.

EGIA

19:00. *Yerma* antzezlan, La Dramatica Errante & BBK Produccion. Egia kultur etxean. 10 euro.

INTXAURRONGO

16:00 eta 18:30. *Urteak bete, abenturak bizi,*

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Intxaurrondo kultur etxean.

21:00. Bertso afaria Zulo Zahar elkarte.

LOIOLA

19:00. Jolastu gaitzen ipuinak marraztera, Aitziber Alonso ilustratzailearekin. Loiola kultur etxean erreserba.

19:00. Irakurketa musikatu bertsotua: Lander Garrok gidatuta, Andoni Egaña eta Eli Pagola bertsotan, Loiola kultur etxean.

AZAROAK 27, IGANDEA

LOIOLAKO ERIBERA

12:00. Kantujira, musikariz lagunduta.

EGIA

19:00. *Yerma* antzezlan, La Dramatica Errante & BBK Produccion. 10 euro.

GROS

18:00. Ibai Nikolairen kontzertua Marruma elkarte.

AZAROAK 28, ASTELEHENA

LOIOLAKO ERIBERA

19:00. Solasaldia Gabriel Maria Laffitte plazan, euskararen erabileraz: *Loiolako Eribera, Donostia eta Euskal Herriko datuak etorkizuna marrazten.*

AZAROAK 30, ASTEAZKENA

MORLANS

17:30. Nerabeentzako bertsolaritza ikastaroa auzo elkarte.

19:30. *Magma mia* antzerkia Bea Egizabalen eskutik, auzo elkarte.

EGIA

18:00. Literatur solasaldia: *Sortaldekoak*, Hedoi Etxarte idazlearekin.

GROS

20:00. Kontzertu akustikoa Okendo kultur etxeko terrazan: 3zur eta Pelax.

ABENDUAK 1, OSTEGUNA

PARTE ZAHARRA

19:30. Bertso poteoa, Arrano Beltzatik.

ABENDUAK 2, OSTIRALA

MORLANS

17:30. Euskaraldiskoa Leire plazan.

INTXAURRONGO

18:30. Bernart Etxepare plazan, plaza dantzak. Gidaritza: Musika eskola.

19:00. Gaztain erretzea Bernart Etxepare plazan.

PARTE ZAHARRA

12:00. Bertso saioa Konstituzio plazan. Alaia Martin, Unai Gaztelumendi, Eli Pagola, Beñat Gaztelumendi bertsotan. Gai jartzailea: Iker Iriarte.

21:00. Talka musika taldearen kontzertua Konstituzio plazan.

00:00. Euskaraokea Herria tabernan.

AMARA

15:00–18:00. Euskararen Eguna auzoan. Eskolako haurren marrazki erakusketa, txokolate jana eta haurrentzako antzerkia.

ABENDUAK 3, LARUNBATA

EGIA

12:00. Kantu jira Kata tabernatik abiatuta.

14:30. Gazteentzako bertso bazkaria Arrano elkarte.

17:30. Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak Egia kultur etxean.

18:00. Elektrotxaranga auzoan zehar.

INTXAURRONGO

11:00. Ikastetxeen elkarketa bateratua Sagasti eder plazan.

19:00. AMAK musika taldearen kontzertua Intxaurrondo kultur etxean. 10 euro.

LOIOLA

13:00. Trikipoteoa auzoan zehar.

14:30. Basurde bazkaria Hontza elkarte.

PARTE ZAHARRA

12:00. Joaldunak Arrano Beltzatik hasita.

12:00. Kantujira berezia, udal txistulari bandak lagunduta. Konstituzio plazatik abiatuko dira.

16:30. Erraldoiak.

18:00. Kale antzerkia: *Libera State*. Trinitate plazan. Euria eginez gero, San Telmon.

18:00. Erromeria, Konstituzio plazatik hasita.

GROS

16:00–19:00. Erraldoiak, gazteentzako pista jolasak, haurrentzako jolasak eta Zuhaizti–Manteoko ikasleen dantzak, Katalunia plazan.

ABENDUAK 4, IGANDEA

PARTE ZAHARRA

09:00. Goiz dei loratua, udal txistulari bandarekin, kantua eta dantzekin.

12:15. Euskarari eskainitako kontzertua, Konstituzio plazan.

17:00. *Ipuinen lapikoa* eta txokolate jatea.

IGELDO

12:00. Euskal zunba saioa plazan.

13:00. Kantujira

EUSKARALDIAN ERE

Mintzabaguma

3 URTE

bagera



bagera

Donostiako euskaltzaleen elkarte

www.bagera.eus